

**2008KO MARTXOAREN 18AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO  
OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria  
**ARETOA:** Batzar Aretoa  
**EGUNA:** Hemezortzia  
**HILABETEA:** Martxoa  
**URTEA:** Bi mila eta zortzi  
**HASIERAKO ORDUA.** Eguerdiko ordu-biak  
**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa  
**DEIALDIA:** Lehena  
**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Sei (6)  
**MAHAIBURUA:** Patxi Plazaola Muguruza  
**BILDUAK:** Aitor Aldasoro Iturbe  
Fernando Boada González  
Julio Herreros Serna

**ETORRI GABEAK:** Jon Kortaberria Lasa  
Begoña Lasa Royuela

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

**1.- AURREKO AKTA.** 2008ko otsailaren 19ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da berarekiko zer esanik ez dagoelako.

**2.- KONTRATAZIOA:**

a) J. M. Arana kaleko, 1 Areako 1 Unitate Egikaritzeko Birgaitze Plan Berezia gauzatzeko kudeaketa-lanak lehiaketa bidez kontratatzeke baldintza plegua onartzea.

Gaia ezagutzera eman ondoren, bildutakoek aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

**Lehenik.** J. M. Arana kaleko, 1 Areako 1 Unitate Egikaritzeko Birgaitze Plan Berezia gauzatzeko kudeaketa-lanak lehiaketa bidez kontratatzea eta horretarako baldintza plegua onartzea. Kontratazioa egiten da, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, 1. Areako 1.1 EU Exekuzio Unitatea Birgaitze Integratuko Eremua aitortzeko baldintzapean.

Baldintza pleguaren ezaugarri berezienak ondorengoak dira:

1.- Kontratatzeko era eta prozedura: lehiaketa irekia eta prozedura arrunta.

2.- Lizitazio prezioa: 55.466,30 € urteko, BEZ barne.

3.- Espedientea: baldintza plegu administratiboa eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Beasaingo Udalaren Harrera Bulegoan.

4.- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %4a.

5.- Egikaritze epea: bi urte.

6.- Proposamen eredia: Baldintza Administratibo-pleguaren eranskinean azaltzen dena.

7.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatuta 15 eguneko epean.

8.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatuzaileek Baldintza Administratiboaren Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

9.- Adjudikazio irizpideaak: prezioa (40 puntu gehienera), arbitraje-prozeduretako eskarmentua (60 puntu gehienera).

**Bigarren.** Deialdi publikoa egitea, iragarkia GAOn argitaratuz.

**b) Kultur Etxera iristeko arkitektura-oztopoak kentzeko lanak lehiaketa bidez kontratatzeko proiektua eta baldintza plegua onartzea.**

Gaia ezagutzera eman ondoren, bildutakoek aho batez ondorengo erabakia hartu dute:

**Lehenik.** Kultur etxera iristeko arkitektura-oztopoak kentzea izeneko proiektua onartzea.

**Bigarren.** Kultur etxera iristeko arkitektura-oztopoak kentzeko obrak lehiaketa bidez kontratatzea eta horretarako baldintza plegua onartzea. Baldintza pleguaren ezaugarri berezianak ondorengoak dira:

1.- Kontratatzeko era eta prozedura: lehiaketa irekia eta prozedura arrunta.

2.- Lizitazio prezioa: 81.471,87 €

3.- Enpresa sailkapena: C taldea, 2 Azpitaldea, c maila.

4.- Espedientea: baldintza plegu administratiboa eta bestelako dokumentazioa, interesatuen esku aurkitzen dira, Beasaingo Udalaren Harrera Bulegoan.

5.- Behin betiko bermea: adjudikazio aurrekontuaren %4a.

6.- Egikaritze epea: hiru hilabete.

7.- Proposamen eredia: Baldintza Administratibo-pleguaren eranskinean azaltzen dena.

8.- Aurkezteko epea, lekua eta ordua: Proposamenak, Beasaingo Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatuta 26 eguneko epean.

9.- Aurkeztu beharreko agiriak: Lizitatzailerek Baldintza Administratiboan Pleguan adierazitako agiriak aurkeztu beharko dituzte.

10.- Adjudikazio irizpideaak: prezioa (70 puntu gehienera), obraren azterketa (10 puntu gehienera), epeak: partzialak eta guztira (10 puntu gehienera), obrari atxikitako pertsonala (5 puntu gehienera) eta makinaria eta baliabideak (5 puntu gehienera)

**Hirugarren.** Deialdi publikoa egitea, iragarkia GAO-n argitaratuz.

### **3.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera eguerdiko hirurak eta laurdenetan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek akta hau idatzi eta sinatu dut.